

Data: 2025-12-15

Harremanetarako

Olga Irastorza (o.irastorza@gaindegia.eus / 33 608 721 148)

Xabier Oleaga (x.oleaga@gaindegia.eus / 34 665 706 796)

Ipar Euskal Herriak enpresa-dentsitate handiagoa eta prestakuntza-maila hobia du Hegoaldeak baino

Gaindegia behategiak Euskal Herriari dagozkion lurralde arteko datu konparatiboak biltzen dituen txostena aurkeztu du gaur Baionan

Ipar Euskal Herria da mila biztanleko enpresa kopuru handiena duen lurraldea, Hego Euskal Herriaren gainetik, eta alde handiarekin, bereziki Lapurdiko probintzian, nahiz eta Bizkaiak izan enpresa kopuru handiena, Gaindegia gaur Baionan aurkeztu duen azken hogeitazorteko (2004-2024) txosten estatistikoaren arabera.

Mugaz gaindiko behatoki sozioekonomikoak deitutako prentsaurrekoan, Olga Irastorza eta Beronika Larre, Gaindegia Zuzendaritza Batzordeko eta Ipar Euskal Herriko ordezkariak, eta Xabier Oleaga eta Anjeles Iztueta, erakundeko idazkari nagusia eta Batzorde Zientifikoaren koordinatzailea, izan dira, hurrenez hurren.

Gaur goizean prentsarekin izandako hitzorduen ondoren, 18:00etatik aurrera, txosten bera aurkezteko ekitaldi sozial bat egin da Bidarteko (Lapurdi) Industria Teknologia Aurreratuen Goi Eskolan, hau da, Estian. Ekitaldian aditu ugari egon dira, eta baita Ipar Euskal Herriko esparru sozioekonomikoko eragileak ere.

Informazio honen hasieran emandako azalpenaren jatorria honako datu hau da: Lapurdin mila biztanleko dagoen enpresa-tasa, probintzia guztien artean altuena, 123,9koa da. Atzetik Nafarroa Beherea dago, 90,2rekin. Gipuzkoak du tasarik altuena Hego Euskal Herrian, baina urrun dago, 77,8rekin, eta gero Bizkaia dator,

75,2rekin. Zuberoak 72,6ko tasa du, eta Arabak, aldiz, 71,9koa. Nafarroa Garaiak du mila biztanleko enpresa-dentsitatearen zifrarik txikiena, 58,6ko tasa, hain zuzen.

Ez da Ipar Euskal Herriko enpresa-eroldari buruzko datu esanguratsu bakarra. Txostenaren arabera, “2014 eta 2023 urteen artean, Ipar Euskal Herrian erregistratutako enpresen kopuruak gora egin du etengabe, 24.836 enpresa izatetik 38.551 izatera igaro baita, hau da, % 55eko hazkundera izan du”. Aldi berean, Hego Euskal Herriko hazkundera % 44ekoa baino ez zen izan, 196.394 enpresa baitzeuden 2014an, eta 282.653, aldiz, 2023an.

Ikuspegi kualitatibotik, hazkundera bereziki garrantzitsua izan da jarduera espezializatu, zientifiko eta teknikoan, hamar urtean 3.408 enpresa izatetik 7.323 izatera igaro baitira, eta hirugarren postutik ia lehenengora igo. Ipar Euskal Herriko ekonomia modernoaren kualifikazioaren eta berrikuntzaren aldeko apustu sendoaren adierazle nagusia da datu hau, eta baita gaitasun teknologiko eta profesionalari buruzko lurralde arteko azterketa konparaturako giltzarria ere.

Hala ere, Ipar Euskal Herriko jarduera ekonomikoaren lehen sektorea merkataritza, garraioa, ostalaritza eta gastronomia biltzen dituen multzoa da. 7.887 enpresa zeuden 2023an.

Manufaktura-industria ere apur bat hazi da, 1.598 enpresatik 2.287ra igo baita. Higiezinaren sektoreko jarduera da adierazitako aldiaren behera egin duen bakarra. 2022an lortu zuen maila gorena, 3.433 enpresarekin, baina urtebete geroago 2.856ra jaitsi zen kopuru hori.

Finantza-erregistroak eta aseguruaren erregistroak ere gorakada nabarmena izan dute; izan ere, kopuruak bikoiztu egin dira, erregistratutako 757 entitateetatik 1.944ra igaro baitira.

Hala ere, Bizkaia da enpresa kopuru handiena duen lurraldea, 86.338 erregistroarekin; jarraian, Gipuzkoa dago, 56.241ekin, eta, ondoren, Nafarroa Garaia, 38.941ekin. Podiumetik kanpo, baina hirugarren postutik urrun, Lapurdi dago, 34.569 enpresa baititu erregistratuta; eta, azkenik, Araba, 24.008ekin. 2023an, Nafarroa Behereak 2.950 erregistratu zituen, eta Zuberoak, 1.055.

Biztanleria aktiboa eta enplegu-tasa

Bestalde, Ipar Euskal Herriko mila biztanleko enpresen dentsitateak lotura zuzena du enpresa horien dimentsioarekin. Izan ere, enpresa-erakundeen ehuneko 65,2k soldatapeko langile-taldeak dituzte, langile bat eta hamabost langile artean,

Euskal Herri osoko batez bestekoaren oso gaintetik, % 58,3koa baita han.

Tamaina ertaineko enpresek, hogeita eta berrogeita hamar langile artekoek, hain zuzen, langile mota horien ehuneko 17,3ri ematen diote lana. Bestalde, 500 enplegutik gorako enpresa-establezimenduek langile horien 10,9 dituzte.

Zuberoan izan ezik, zifra negatiboak baititu biztanleria aktiboan zein okupatuan, produkzio-egituran izandako mugimendu garrantzitsuek eutsi egin diete, eta bi kontzeptuek hazkunde moderatua izan dute. 2011n, 182.457 pertsona izatetik 194.467 izatera igaro zen hamar urte geroago. Lapurdik biztanleria horren zati handi bat hartzen du (2022an, 167.595), eta lurralde horretan eman da igoera handiena, ehuneko 8,3. Nafarroa Behereak (2022an, 19.093) ehuneko bateko igoera eskasa du, eta Zuberoak (2022an, 8.063) % 11ko jaitsiera izan du.

Okupazio-tasa, berriz, % 13,9 igo zen; Lapurdiren kasuan % 16,2, Nafarroa Beherean % 6,4 eta, Zuberoan, aldiz, % - 7,1.

Okupazio-tasak genero-irizpidearen arabera irakurritz gero, igoera-ehuneko handiagoak ikusten dira emakumeen kasuan gizonen kasuan baino. Hala, 2011 eta 2022 urteen artean tasa horrek Ipar Euskal Herri osoan izan duen igoera ehuneko 5,7koa izan da, eta gizonenak, berriz, ehuneko 3,2koa.

Langabezia-tasak

2011/2022 zikloko langabezia-tasei erreparatzen badiegu, 2016. urtea gailurra izan zen bai Ipar Euskal Herrian, bai Euskal Herri osoan. Ipar Euskal Herrian, langabezia tasa 7,8koa zen 2011n, 8,4koa 2016an, eta 7,4koa 2022an. Lapurdik multzoaren batez besteko hori igoarazi egin zuen, % 8,4ko langabezia baitzuen 2011n, % 9,5koa 2016an eta % 7,8ra jaitsi zen 2022an. Beste bi lurraldeek, Nafarroa Behereak eta Zuberoak, % 5,2ko eta % bosteko langabezia izan zuten 2022an.

Hego Euskal Herrian, 2016ko langabezia-tasa % 15,3koa izan ziren Bizkaian, % 14,1koa Araban, % 12,6koa Nafarroa Garaian eta % 9,9koa Gipuzkoan. % 9,3ra jaitsi ziren Bizkaian, % 9,5era Araban, % 10era Nafarroa Garaian eta % 6,9ra Gipuzkoan.

Hezkuntza

Bestalde, hezkuntzari buruzko atala bereziki esanguratsua da Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko datu estatistikoaren irakurketa konparatuan.

Ipar Euskal Herriko biztanleen ikasketak-mailak gora egin du 2011 eta 2022 urteen artean, eta, beraz, oinarritzko titulurik gabeko pertsonen kopurua nabarmen jaitsi da, hamar puntutik gora. Lanbide-heziketako mailak eta CAP/BEP mailak mantendu egin dira, eta, aldi berean, batxilergoa egiten duten pertsonen kopuruak gora egin du poliki-poliki, baina modu iraunkorrean.

Hala ere, goi-mailako ikasketak dituztenen tasa da gehien hazi dena.

Ipar Euskal Herrian, goi mailako ikasketak zituen biztanleriaren tasa % 55 zen 2022an (% 56,7 Lapurdiren kasuan), eta Hego Euskal Herrian, berriz, % 37 eta 44 artekoa. Nafarroa Beherean % 47koa zen, eta Zuberoan, % 41,1ekoa.

Baina Ipar Euskal Herriko datu hauek ez dira hobeak soilik goi mailako hezkuntzan, beste hezkuntza-etapa batzuetan ere bai.

Derrigorrezko irakaskuntzaren lehen etaparen pareko titulazioa edo are baxuagoa duten pertsonen tasa % 35 eta 42 artean egon liteke Hego Euskal Herrian; Ipar Euskal Herrian, berriz, titulazio-tarte hori % 19,8an dago, hamar urtean hamar puntu jaitsi ondoren.

Genero-irizpideari dagokionez, emakumeak dira zifrarik altuenak dituztenak, bai goi mailako hezkuntzan, bai batxilergoan. Goi mailako hezkuntzan dauden emakumeen % 20,4 dira, eta gizonak, % 15,8. Batxilergoan, brebet profesionalean edo antzekoan dauden emakumeak % 10,1 dira, eta gizonak, % 8,8.

Etxebizitza, euskara eta familia

Txostenaren beste eduki batzuek etxebizitzaz, euskararen ezagutzaz edo familia-ereduek gizarte-egituran izan duten bilakaeraz hitz egiten dute, adibidez.

Lehenengoari buruz, Ipar Euskal Herriko etxebizitza parkearen igoera nabarmena egiaztatzen da: 1968an 78.000 ziren, eta 2022an, berriz, 216.000. Kapitulu berean azaltzen denez, alokatutako etxebizitza % 41,9 da Ipar Euskal Herrian, eta Hego Euskal Herrian, berriz, % 15,3.

Euskaldunen kopuruari dagokionez, Ipar Euskal Herrian euskal hiztunen kopuruak behera egin duela berretsi du azterlanak (biztanleriaren % 33 1991n, % 21 202an: Hego Euskal Herrian, berriz, euskara ezagutzeko joerak gora egin du.

Familia-ereduak, bestalde, aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu, eta, horien arabera, eredu tradizionala finkatu egiten da, guraso bakarreko eskema desberdinen edo sexu bereko bikoteek osatutako familien aurrean.

Hogei urteko bilduma-tostena

Datu hauek Gaiudegiak Euskal Herriko lurralde guztietarako egindako txosten baten parte dira, behategiaren hogei urteko historia biltzen baitu. 2004an sortu zen behategi sozioekonomikoa. Hiru urte geroago hasi zen bere lehen adierazle-galeria ematen, eta iaz, hogeita laugarren urteurrenarekin batera, hogei urteko bilketa-txostena argitaratu zuen.

Lehen bertsioa iazko azaroan aurkeztu zen, oro har, eta Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko testu espezifikoak geroago argitaratu dira. Joan den ekainean Iruñean egin zen aurkezpena, eta gaur Ipar Euskal Herrian egindakoak emango dio amaiera ziklo honi.

Dokumentu hau hiru kapitulu handitan banatuta dago: Demografia, Etxebizitza eta Ekonomia eta Lan Merkatua. Lehenengo kapitulua, bere aldetik, hamaika ataletan banatzen da: biztanleria, dentsitatea, jaiotza- eta heriotza-tasak, hezkuntza-mailak, euskara eta beste batzuk. Bigarrena zazpi azpiataletan azaltzen da, etxebizitza-parke orokorrari, eraikinen adinari, jabetza-erregimenari eta abarri buruzko datuetatik abiatuta. Hirugarrena enpresari eta lan-merkatuari buruzkoa da.

Homologatutako datuak

Txostena egiteko eta aurkezteko ereduak hautsi egiten du txostenaren eskema tradizionala. Ipar Euskal Herriari dagokionez, oinarri zientifikoarekin aurkez daitezkeen atalak aukeratu dira, konparaziozko terminoetan, Eurostat espazioan homologatutako irizpideei erantzuten baitiete. Beste gai interesgarri batzuk baztertu egin dira oraingoz, parametro homologagarrietan neurtzeko zailtasunagatik.

Gaindegiaaren txostenak Eustatek eta Nastatek (biak Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren mendekoak, hurrenez hurren) Hego Euskal Herrirako emandako datuetan oinarrituta egin dira; Ipar Euskal Herriaren kasuan, berriz, iturriak Audap, INSEE eta beste batzuen artean sakabanatzen dira, eta horrek zaildu egiten du datuak biltzea eta alderatzea.

Ipar Euskal Herriari eta Nafarroa Garaiari zuzendutako argitalpenetan, bestalde, lurralde bakoitzari dagozkion datuei Euskal Herriko gainerako lurraldeekin konparatutako irakurketa gehitzen zaie.

Zer da Gaindegia?

Gaindegia behategi sozioekonomiko bat da, Euskal Herri osoa hartzen du, eta gizarte zibiletik datorren elkarte batek sostengatzen du, funts publiko zein pribatuen finantzaketarekin. Behategiaaren jarduera-eremua osatzen duten lurralde guztietako bazkideen batzar bat, zuzendaritza batzorde bat eta batzorde zientifiko aholku-emaile bat ditu; azken hori Euskal Herriko unibertsitate guztietako hamazazpi adituk, hau da, katedra, doktorego, ikerketa eta abarren titularrek, eta Administrazioako zenbait goi-kargudun ohik osatua dago.